EIBAR
Udala | Ayuntamiento

BALDINTZA-AGIRIA, JABARI PUBLIKOKO EMAKIDA BIDEZ IPURUAKO APARKALEKUEN ERABILERA ETA GOZAMENA ESLEITZEKO

1.- LIZITAZIOAREN HELBURUA.

Eibarko Udalak lizitazio publikorako deialdia egiten du, jabari publikoko emakida bidez, jarraian adierazten den guztiaren erabilera eta gozamena esleitzeko, hura erabiltzeko behar diren elementuekin batera:

- 37 aparkaleku-plaza.
Mugikortasun urriko pertsonentzako aparkaleku 1.

Ipuruako Eranskineko etxabeetan dagoen aparkalekuan, Santaines kalean.

I. ERANSKINEAN dago lizitazio honen xede den aparkalekuen planoa.

Aparkaleku-plazak eragin-eremuan erroldatuta dauden eskatzaileei esleituko zaizkie. Honako kale hauek osatzen dute:
Santaines, Indalezio Ojanguren, Romualdo Galdos, Ipurua eta Juan Antonio Mogel

2.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Emakida-kontratu hau baldintza-agiri honetan ezarritakoaren arabera arautuko da, eta, bertan aurreikusten ez denerako, honako hauek aplikatuko dira: 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa; Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamendua, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua, eta 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako

PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA ADJUDICACIÓN EN RÉGIMEN DE CONCESIÓN DEMANIAL, DEL USO Y DISFRUTE DE PLAZAS DE APARCAMIENTO EN IPURUA

1.- OBJETO DE LA LICITACIÓN.

El Ayuntamiento de Eibar convoca licitación pública para la adjudicación en régimen de concesión demanial del uso y disfrute de cuanto seguidamente se indica junto con los elementos necesarios para su utilización:

- 37 plazas de aparcamiento.
- 1 plaza de aparcamiento para personas con movilidad reducida

En el aparcamiento sito en los bajos Anexo de Ipurua en la Calle Santaines.

En el **ANEXO I** figura el plano con las plazas de aparcamiento objeto de la presente licitación.

Las plazas de aparcamiento se adjudicarán a los/as solicitantes empadronados/as en la zona de influencia: conformada por las siguientes calles:
Santaines, Indalezio Ojanguren, Romualdo Galdos, Ipurua y Juan Antonio Mogel

2.- RÉGIMEN JURÍDICO DEL CONTRATO

Este contrato de concesión se regirá por lo establecido en este Pliego, y para lo no previsto en él, será de aplicación la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas; el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio y la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014; supletoriamente se aplicarán las restantes

ordenamendu juridikora; ordezko moduan, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honen inguruan sortzen diren arazoen berri izateko.

El orden jurisdiccional contencioso-administrativo será el competente el conocimiento de las cuestiones que se susciten en relación con este contrato.

3.- IRAUPENA

3.- DURACIÓN.

Emakidaren epea **50 URTEKOA** izango da, emakidaren adjudikazioa ebazten den egunetik zenbatuta.

El plazo de la concesión será de **50 AÑOS**, contados desde la fecha de la resolución de la adjudicación de la concesión.

Udalak eskubidea du emakidaren muga-eguna baino lehen hura berreskuratzeko, interes publikoko inguruabarrek hala justifikatzen badute. Berreskuratze hori banaka edo osorik egin liteke, inguruabarren arabera. Berreskuratzea emakidadunaren erru edo doloari egotz dakizkiokeen arrazoietan oinarritzen bada, ez da bidezkoa izango kalteen ordaina eta kalte-galeren ordaina ematea, une horretan indarrean dauden arauen arabera.

El Ayuntamiento se reserva el derecho a rescatar la concesión antes de su vencimiento si lo justifican circunstancias de interés público. Este rescate podrá ser individualizado o conjunto, según sean las circunstancias que concurran para ello. Cuando el rescate esté basado en motivos imputables a culpa o dolo de el/la concesionario/a, no procederá el resarcimiento de los daños e indemnización de perjuicios de acuerdo con las normas vigentes en la materia en aquel momento.

Goiko kasu horietan, emakidadunak konpromisoa hartzen du aparkalekua laga eta libre uzteko, emakida-berreskuratzeko akordioaren jakinarazpena jaso eta hiru hilabeteko epean. Hala egingo ez balu, automatikoki galduko luke aurreko atalean aurreikusitako kalte-ordaina jasotzeko eskubidea.

En los supuestos anteriores el/la concesionario/a se compromete a abandonar y dejar libre el estacionamiento, en el plazo de tres meses a partir de la notificación del acuerdo de rescate. En otro caso, perdería automáticamente el derecho a resarcimiento o indemnización previsto en el apartado anterior.

Emakida berreskuratu ondoren kalte-ordaina jasotzeko eskubidea bidezkoa bada, kalte-ordaina 10.3 klausulan aurreikusitako formularen arabera kalkulatuko da.

Para el supuesto en que proceda el derecho a resarcimiento o indemnización tras el rescate de la concesión, la indemnización se calculará de acuerdo con la fórmula prevista en la cláusula 10.3.

4.- ZOZKETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

4.- REQUISITOS PARA ACCEDER AL SORTEO.

Honako hauek izango dira zozketan parte hartzeko nahitaezko baldintzak:

Serán requisitos necesarios para poder participar en el sorteo los siguientes:

a) Pertsona fisikoa izatea.

a) Ser persona física.

b) Eibarren erroldatuta egotea gutxienez 2024eko urtarrilaren 1etik.

c) Aparkaleku-plaza eskatu duen ibilgailua eskatzailearen jabetzakoa izatea Eibarko udalerrian trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga hori ordainduta izatea.

Ez da beharrezkoa izango Eibarko udalerrian trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan alta emanda egotea, baldin eta eskatzaileak bere enpresak lagatako ibilgailuren bat badu (enpresaren jabetzakoa edo finantza-errentamenduko kontratu bat sinatuta eskuratu duena), eta ibilgailu horrek zerga beste udalerri batean ordaintzen badu.

d) Plegu honetan adierazitako eragin-eremuan jabetzan beste aparkaleku-plazarik ez izatea.

d) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkaleku-plazak eskuratu nahi izanez gero, eskatzaileak mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkatzeko txartela izan beharko du. Txartel hori Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuak sortu zuen, eta txartelduna ibilgailuaren jabea izan behar da (edo ibilgailua bere enpresak lagatakoa izan).

Pertsona bakoitzeko APARKALEKU-PLAZA BAT esleitu ahal izango da gehienez, baldin eta agiri hontan adierazitako eragin-eremuan aparkaleku-plazarik ez badu jabetzan.

5.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA.

Epea:

b) Estar empadronado/a en Eibar como mínimo desde el 1 de enero de 2024.

c) Que el vehículo para el que se solicita la plaza de aparcamiento sea propiedad de el/la solicitante, esté dado de alta en el Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica en el término Municipal de Eibar y se encuentre al corriente del pago de dicho impuesto.

Se exceptúa del requisito de estar dado de alta en el Impuesto sobre Vehículos de tracción Mecánica en el término Municipal de Eibar, en caso de que el/la solicitante disponga de un vehículo cedido por su empresa (bien sea propiedad de esta o bien lo haya adquirido mediante la suscripción de un contrato de arrendamiento financiero) que abone el Impuesto en otro término municipal

d) No tener otra plaza de aparcamiento en propiedad en la zona de influencia que I de este pliego

e) En caso de querer optar a las plazas de aparcamiento para personas con movilidad reducida, la persona solicitante deberá poseer la tarjeta de estacionamiento para personas con movilidad reducida, creada por el Decreto 256/2000, de 5 de diciembre, del Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, del Gobierno Vasco y ser propietaria del vehículo (o tener en cesión el vehículo por parte de su empresa).

Podra adjudicarse por persona como máximo UNA PLAZA DE APARCAMIENTO siempre que no tenga en propiedad ninguna plaza de aparcamiento en la zona de influencia que se indica en este pliego

5.- PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.

Plazo:

Eskaerak egiteko epea _____ amaituko da.

Eskaerak aurkezteko lekuak:

Eskaerak aurkeztu ahalko dira:

- **Elektronikoki** egingo dira www.eibar.eus udal webgunetik. Izapidea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

- **Aurrez aurre** PEGORAN.

6.- DOKUMENTAZIOA.

Emakidak adjudikatzeko prozeduran parte hartzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Santaines kaleko aparkalekuak erabiltzeko eta gozatzeko jabari publikoko emakidan parte hartzeko eskaera, behar bezala beteta, **II. ERANSKIN** gisa agertzen den eredu normalizatuaren arabera.

b) Berme gisa 100 €-ko (EHUN EURO) kopurua ordaindu izanaren agiria, adjudikazio-prozesuan parte hartzeko baldintza moduan. Ordainketa Eibarko Udalaren titulartasuneko honako kontu hauetako batean egingo da:

KUTXABANK: ES05 2095 5035 0210 6002 4618.

LABORAL KUTXA: ES44 3035 0078 8907 8090 0051.

LA CAIXA: ES21 2100 1883 9002 0005 0566.

Adjudikaziodun suertatuz gero, zenbateko hori adjudikazioaren ondoriozko kanonaren konturako

El plazo de presentación de solicitudes finalizará el día _____

Lugares de presentación:

Las solicitudes se podrán presentar:

- **Electrónicamente** a través de la página web municipal, www.eibar.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@K-Q, DNI electrónico, tarjeta de IZENPE, etc.).

- **Presencialmente** en PEGORA.

6.- DOCUMENTACIÓN.

Para poder participar en el procedimiento de adjudicación de las concesiones se deberá presentar la siguiente documentación**:**

a) Solicitud de participación en la concesión demanial de uso y disfrute de plazas de aparcamiento en la Calle Santa Ines debidamente cumplimentada según modelo normalizado que figura como **ANEXO II**.

b) Resguardo de haber depositado la cantidad de 100 €. (CIEN EUROS) en concepto de garantía, como requisito para acceder al proceso de adjudicación. El ingreso deberá realizarse en alguna de las siguientes cuentas de la titularidad del Ayuntamiento de Eibar:

KUTXABANK: ES05 2095 5035 0210 6002 4618.

LABORAL KUTXA: ES44 3035 0078 8907 8090 0051.

LA CAIXA: ES21 2100 1883 9002 0005 0566.

En el caso de resultar adjudicatario/a, este importe tendrá la consideración de anticipo a cuenta del canon derivado de

aurrerakintzat hartuko da eta handik deskontatuko da.

c) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako plazak eskuratu nahi izanez gero, ezgaitasuna duten pertsonentzat aparkatzeko txartela, aparkatzeko plaza okupatuko duen ibilgailuaren titularrari dagokiona. Enpresek lagatako ibilgailuen kasuan, ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartela pertsona horri bere enpresak lagatako ibilgailuaren erabiltzailearena izan behar da.

la adjudicación y se descontará del mismo.

c) En el caso de querer optar a plazas adaptadas para personas con movilidad reducida, tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad correspondiente a el/la titular del vehículo que vaya a ocupar la plaza de aparcamiento en cuestión. En el caso de vehículos cedidos por empresas, la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad deberá corresponder a la persona usuaria del vehículo cedido por su empresa.

7. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

7.1 Kontratazio Mahaia

Honela osatuko da:

Mahaiburua:

Pedro Escribano

Bokalak:

Elena Juaristi (Arquitecta municipal)

Ander gurrutxaga (Director obras)

Xabier Urteaga (Director de servicios)

Udal kontu-hartzailea.

Miguel Olveira

Udal idazkaria.

Daniel Salazar

Idazkaria:

Ainhize Ortuondo (Kontratazioak eta Dirulaguntzak Unitatearen zuzendaria).

7. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

7.1 Mesa de contratación.

Su composición será la siguiente:

Presidente:

Pedro Escribano

Vocales:

Elena Juaristi (Arquitecta municipal)

Ander gurrutxaga (Director obras)

Xabier Urteaga (Director de servicios)

El Interventor Municipal.

Miguel Olveira

El Secretario Municipal.

Daniel Salazar

Secretaria:

Ainhize Ortuondo (Directora Contratación y Subvenciones).

Kontratazio Mahaiak kalifikatuko ditu interesdunek denboraz eta formaz aurkeztutako agiriak. Egoki baderitzo, 10 eguneko epea emango du akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko.

La Mesa de contratación procederá a calificar la documentación presentada en tiempo y forma por los/las interesados/as, pudiendo conceder, si lo estima conveniente un plazo de 10 días para subsanar los defectos o completar la documentación.

7.2. Zozketa.

7.2 Desarrollo del sorteo.

Aparkalekuak zozketa bidez adjudikatuko dira.

Las plaza serán adjudicadas mediante sorteo.

Mugikortasun murriztua duten pertsonei egokitutako aparkaleku-plazak ezintasunak dituzten pertsonentzat aparkatzeko txartela duten pertsonei bakarrik adjudikatu ahal izango zaizkie, betiere, aparkatzeko plaza okupatuko duen ibilgailuaren titularrak badira.

Las plazas de aparcamiento adaptadas a personas con movilidad reducida solamente podrán ser adjudicadas a las personas que dispongan de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad y sean titulares del vehículo que vaya a ocupar la plaza de aparcamiento en cuestión.

Kontratazio Mahaiak onartutako eta baztertutako eskatzaileen behin-behineko zerrenda egingo du, eskaera bakoitza aurkezten den unearen arabera kronologikoki ordenatuta. Horrela, onartutako auzotar bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio, aurkeztutako lehenengo eskabideari 1 dagokiona eta azken eskabideari n dagokiona.

La Mesa de Contratación confeccionará una lista provisional de solicitantes admitidos/as y excluidos/as que estará ordenada cronológicamente según el momento de presentación de cada solicitud. Así, a cada vecino/a admitido/a en la lista se le asignará un número, correspondiéndole el 1 a la primera solicitud presentada y n a la última.

Behin-behineko zerrenda Eibarko Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 10 egun balioduneko epean haien aurkako alegazioak aurkeztu ahal izateko.

La lista provisional se publicara en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento de Eibar para que, en el plazo de 10 días hábiles contados desde el siguiente al de su publicación, se puedan presentar alegaciones contra las mismas.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta eta, hala badagokio, aurkeztutako alegazioak ebatzita, Kontratazio Mahaiak behin betiko zerrenda onartuko du, eta plazak aukeratzeko zozketa publikoa egingo den eguna, ordua eta lekua finkatuko ditu. Informazio hori udaleko kontratatzailearen profilean, udalaren webgunean, sare sozialetan eta prentsan jakinaraziko du, behar besteko aurrerapenarekin.

Finalizado al plazo de exposición pública y resueltas, en su caso, las alegaciones presentadas, la Mesa de Contratación aprobará la lista definitiva y fijará el día, hora y lugar en que tendrá lugar el sorteo público para la elección de las plazas, comunicándolo en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento, en la página web municipal, en las redes sociales y en prensa con la debida antelación.

Zozketa honela egingo da:

El sorteo se realizará de la siguiente manera:

Zenbaki bat aterako da ausaz poltsa batetik. Zenbaki hori duen etxepekoari esleituko zaio 1 zenbakia duen aparkalekua.

Se extraerá al azar un número de una bolsa. El/la vecino/a a quien corresponda ese número resultará adjudicatario de la plaza de aparcamiento numerada con el nº 1

Gainerako plazak modu korrelatiboan esleituko dira, lehen erauzketatik aurrerako zenbakizko ordenari jarraituz.

Las restantes plazas se asignarán correlativamente siguiendo el orden numérico ascendente a partir de la primera extracción.

Kontratazio Mahaiak Kontratatzailearen profilean zozketan onuradun atera diren eskatzaileen zerrenda argitaratuko DU.

La Mesa de Contratación publicará en el perfil del Contratante la lista de solicitantes agraciados/as en el sorteo.

Plazak zozketaren ondoriozko ordenan esleitu ondoren, Kontratazio Mahaiak plazak esleitzeko proposamena igorriko dio alkateari.

Asignadas las plazas en el orden resultante del sorteo, la Mesa de Contratación elevará al Alcalde la propuesta de adjudicación de las plazas.

Kontratazio Mahaiaren proposamena jaso ondoren, Alkatetzaren ebazpen bidez adjudikatuko dira aparkalekuak.

Recibida la propuesta de la Mesa de Contratación, mediante resolución del Alcalde, se procederá a la adjudicación de las plazas de aparcamiento.

Plazen aukeraketa-eguna amaitzen denetik gehienez ere 30 egun naturaleko epean, adjudikaziodun gisa proposatu ez diren eskatzaileek lagatako bermeak itzuliko dira.

En el plazo máximo de 30 días naturales desde la fecha de finalización de la elección de plazas se procederá a la devolución de las garantías depositadas por los/as solicitantes que no hayan sido propuestos como adjudicatarios/as.

7.3 Kanona.

7.3 Canon.

Adjudikaziodun bakoitzak kanon gisa ordaindu beharreko kopuruak hauexek dira:

La aportación a modo de canon que deberá satisfacer cada adjudicatario/a se fija en los siguientes importes:

PARTZELA PARCELA	**AZALERA ERABILGARRIA m²** SUPERFICIE ÚTIL m²	**KANONA** **CANON**
001	18.00	19.000 + ITP 4%
002	13.35	19.000 + ITP 4%
003	13.35	19.000 + ITP 4%
004	13.35	19.000 + ITP 4%
005	13.35	19.000 + ITP 4%
006	13.35	19.000 + ITP 4%
007	13.35	19.000 + ITP 4%
008	13.35	19.000 + ITP 4%
009	13.35	19.000 + ITP 4%

010	13.35	19.000 + ITP 4%
011	13.35	19.000 + ITP 4%
012	13.35	19.000 + ITP 4%
013	13.35	19.000 + ITP 4%
014	13.35	19.000 + ITP 4%
015	13.35	19.000 + ITP 4%
016	13.35	19.000 + ITP 4%
017	13.35	19.000 + ITP 4%
018	13.35	19.000 + ITP 4%
019	13.35	19.000 + ITP 4%
020	13.35	19.000 + ITP 4%
021	13.35	19.000 + ITP 4%
022	13.35	19.000 + ITP 4%
023	13.35	19.000 + ITP 4%
024	13.35	19.000 + ITP 4%
025	13.35	19.000 + ITP 4%
026	13.35	19.000 + ITP 4%
027	13.35	19.000 + ITP 4%
028	13.35	19.000 + ITP 4%
029	13.35	19.000 + ITP 4%
030	13.35	19.000 + ITP 4%
031	13.35	19.000 + ITP 4%
032	13.35	19.000 + ITP 4%
033	13.35	19.000 + ITP 4%
034	13.35	19.000 + ITP 4%
035	13.35	19.000 + ITP 4%
036	13.35	19.000 + ITP 4%
037	13.35	19.000 + ITP 4%
038	13.35	19.000 + ITP 4%

Kanona hamabost egun naturaleko epean ordaindu beharko da, adjudikazioa jakinarazten denetik zenbatuta.

Ordainketa Eibarko Udalaren titulartasuneko honako kontu hauetako batean egingo da:

KUTXABANK: ES05 2095 5035 0210 6002 4618.

El pago del canon deberá realizarse en el plazo de quince días naturales contados desde la notificación de la adjudicación.

El pago se realizará mediante ingreso en alguna de las siguientes cuentas de la titularidad del Ayuntamiento de Eibar:

KUTXABANK: ES05 2095 5035 0210 6002 4618.

LABORAL KUTXA: ES44 3035 0078 8907 8090 0051.

LA CAIXA: ES21 2100 1883 9002 0005 0566.

Ordainketan esleitu zaion aparkaleku-zenbakia adierazi behar da.

Ez bada ordainketarik egiten, adjudikaziodunak behin-behineko fidantza galduko du eta plaza hutsik geratuko da.

Kanona ordaindu eta hilabeteko epean, emakida-kontratua egingo da, eta, adjudikaziodunen eta aukeratutako plazen zerrenda jasotzen duen akordioarekin batera, titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, adjudikaziodunak eskatu ahal izango du emakida-kontratua eskritura publikoan jasotzea; kasu horretan, haren kontura izango dira horrek dakartzan gastuak.

Emakida-kontratua formalizatu ondoren, adjudikaziodunek beren aparkalekuak erabili ahal izango dituzte.

Aparkalekuak erabiltzeko eskubidea lagatzearen ondoriozko gastu eta zerga guztiak, eskritura publikoa egilestearen gastuak barne, aparkalekua erabiltzeko eskubidearen lagapen-hartzailearen kontura izango dira.

7.5 Itxaron-zerrendak

Plazaren adjudikaziodun izan ez diren eskatzaileak itxaron-zerrenda batean sartuko dira, zerrenda bakoitzean ezarritako hurrenkerari jarraituz.

Itxaron-zerrenda horretan sartuko dira halaber zozketan parte hartu ez duten baina aparkalekuetan interesatuta daudenak, dagokion itxaron-zerrendan hurrengo postuak betez, eskabideak aurkeztu diren hurrenkera kronologiko berean.

LABORAL KUTXA: ES44 3035 0078 8907 8090 0051.

LA CAIXA: ES21 2100 1883 9002 0005 0566.

En el pago se deberá indicar el número de plaza que se le haya asignado.

En caso de no abonarlo, el/la adjudicatario/a perderá la fianza provisional y la plaza quedará vacante.

En el plazo de un mes contado desde el pago del canon se formalizará un contrato de concesión que, junto con el acuerdo en el que se recoja la relación de adjudicatarios/as con las plazas elegidas, constituirá título suficiente para el acceso a cualquier registro público. No obstante, el/la adjudicatario/a podrá solicitar que el contrato de concesión se eleve a escritura pública siendo, en este caso, de su cuenta los gastos que ello origine.

Una vez formalizado el contrato de concesión, los/las adjudicatarios/as podrán hacer uso de su respectiva plaza de aparcamiento.

Todos los gastos y tributos que traigan causa o se devenguen de la cesión del derecho de uso de las plazas de aparcamiento, incluido en su caso los gastos de otorgamiento de la escritura pública, serán por cuenta de el/la cesionario/a del derecho de uso de la plaza de aparcamiento.

7.5 Listas de espera

Los/las solicitantes que no hayan sido adjudicatarios/as de plaza se integrarán en una lista de espera, siguiendo el orden establecido en cada lista.

A esa lista de espera se incorporarán también interesados/as en plazas de aparcamiento que no hayan participado en el sorteo, ocupando los puestos siguientes en la lista de espera correspondiente, en orden cronológico de presentación de solicitudes.

EIBAR
Udala | Ayuntamiento

8. EMAKIDADUNEN ERKIDEGOA

Emakiden adjudikazio-ebazpenetik HILABETEKO epean, Emakidadunen Erkidegoa eratuko da, zeinak aparkalekuen partzelak betetzen dituzten herri jabariko Emakidadun guztiak batuko baititu. Emakidaren xede diren aparkalekuetako bakoitzak azaleraren arabera parte hartuko du erkidegoan.

Emakidadunen Erkidegoa eratu ondoren, bilera bat deituko da, gehienez ere eratzen denetik HILABETEKO epean egingo dena, ekitaldi ekonomikorako diru-sarreren eta gastuen aurrekontua onartzeko xedez. Eratutako Emakidadunen Erkidegoak aparkalekuaren kontserbazio- eta mantentze-lan arrunten obligazioak hartuko ditu bere gain. Egoiliarren aparkaleku baten emakida adjudikatzen zaion pertsona orok Erkidegoan parte hartzeko obligazioa du.

Emakidadunen Erkidegoak ordezkari bat izendatuko du Udalarekiko harremanetarako.

Udalak emakidadunen erkidegoari eskualdatuko dio aparkalekuaren ustiapena gaitzen duen ingurumeneko esku-hartzearen tituluaren titulartasuna.

8. COMUNIDAD DE CONCESIONARIOS/AS

En el plazo de UN MES desde la resolución de la adjudicación de las concesiones se constituirá la Comunidad de Concesionarios/as que aunará a todos/as los/a concesionarios/as demaniales que ocupan parcelas del aparcamiento. Cada una de las plazas de objeto de concesión participará en la comunidad en relación a su superficie.

Tras la constitución de la Comunidad de Concesionarios/as, se convocará una reunión que será celebrada en un plazo máximo de UN MES desde la constitución con el fin de aprobar el presupuesto de ingresos y gastos para el ejercicio económico. La Comunidad de Concesionarios/as constituida asumirá las obligaciones de conservación y mantenimiento ordinarios del Aparcamiento. Toda persona, a la que se le adjudique la concesión de una plaza del aparcamiento de residentes queda obligada a pertenecer a la Comunidad.

La Comunidad de Concesionarios nombrará un representante para las relaciones con el Ayuntamiento.

El Ayuntamiento transmitirá a la Comunidad de Concesionarios la titularidad del título intervención ambiental que habilite la explotación del aparcamiento.

9.- EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. Emakidadunaren kontura izango dira:

a) Emakidaren ondorioz eta aparkalekuen erabileraren ondorioz sortzen diren zerga, karga eta gastu guztiak, edozein motatakoak direla ere.

b) Instalazioen mantentze-lanen gastu arruntak, dagokien proportzioan, hala nola garbiketa, zaintza, hornidurak (ura, elektrizitatea eta antzekoak), aparkalekuko ekipo eta instalazioen

9.- DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LOS/LAS CONCESIONARIOS/AS.

1. Serán por cuenta de el/la concesionario/a:

a) Todos los tributos, gravámenes y gastos, de cualquier clase, que se devenguen como consecuencia de la concesión así como del uso de las plazas de aparcamiento.

b) Los gastos ordinarios de mantenimiento de las instalaciones en la proporción que les corresponda, tales como limpieza, vigilancia, suministros (tales como agua, electricidad y similares), mantenimiento de los equipos e instalaciones del

mantentze-lanak eta dagozkion beste edozein gastu arrunt.

c) Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko beharrezkoak diren gastuak, instalazioa legeztatzeko eta aldizkako ikuskapenak egiteko gastuak barne.

d) Beharrezko gaikuntza-tituluen baldintzak betetzeko beharrezkoak diren gastuak, bai eta etorkizunean horiek eguneratzeko beharrezkoak direnak ere.

2. Udalak kontratua azkendu eta aparkalekua berreskuratu ahal izango du, eta erabiltzaileak, zigor-klausula gisa, galdu egingo du gozatzeko dagoen epeari dagokion lagapen-prezioaren % 10; ordaindu gabe dauden gastu guztiak ere ordaindu beharko ditu, honako kasu hauetan:

a) Emakidadunak hileko mantentze-kuota ordaintzen ez badu sei hilabetez edo gehiagoz jarraian edo aldizka, denbora-tarte hori metatuta. Gainera, zorrak dirauen bitartean, erabiltzailea aparkalekuan sartzea eragotzi ahal izango da.

b) Emakidadunak aparkalekuaren ohiko funtzionamenduaren aurkako jokabideak baditu. Puntu hori behar bezala arrazoitu beharko da.

c) Emakidadunak esleitutako plaza aldi baterako edo modu iraunkorrean hirugarrenei lagatzen edo alokatzen badie.

3. Emakidadunak, eraikinaren barruan, honako eskubide hauek izango ditu:

a) Aparkaleku librea eskura izatea bere ibilgailua aparkatzeko.

b) Zerbitzua behar bezalako segurtasun-baldintzetan erabiltzea.

4. Plazaren adjudikaziodunak:

aparcamiento y cualesquiera otros gastos ordinarios que correspondan.

c) Los gastos necesarios para la instalación puntos de recarga para vehículos eléctricos, incluida los de legalización de la instalación e inspecciones periódicas.

d) Los gastos necesarios para dar cumplimiento a las condiciones de los títulos habilitantes necesarios, así los necesarios para obtenerlos en un futuro de actualizarlos.

2. El Ayuntamiento podrá resolver el contrato y rescatar la plaza, con pérdida para el/la usuario/a del 10% del precio de la cesión que corresponda al plazo pendiente de disfrutar en concepto de cláusula penal, sin perjuicio de abonar también la totalidad de los gastos impagados, en los siguientes casos:

a) Si el/la concesionario/a no abona la cuota mensual de mantenimiento por seis o más meses consecutivos o alternos que acumulen dicho periodo de tiempo. Además, mientras persista la deuda se podrá impedir el acceso a la plaza de el/la usuario/a.

b) Si el/la concesionario/a genera conductas contrarias al normal funcionamiento del aparcamiento. Dicho extremo será debidamente motivado.

c) Si el/la concesionario/a cede o arrienda a terceros el uso, bien sea de manera temporal o permanente, de la plaza asignada

3. El/la concesionario/a una vez en el interior del edificio, tendrá los siguientes derechos:

a) Disponer de su plaza de aparcamiento libre para el estacionamiento de su vehículo.

b) Utilización del servicio en las debidas condiciones de seguridad.

4. El/la adjudicatario/a de la plaza deberá:

a) Adjudikatu zaion aparkalekuan aparkatu beharko du bere ibilgailua.

b) Ezingo die kalterik eragin beste ibilgailu batzuei edo aparkalekuaren beraren gelei edo instalazioei.

c) Aparkalekuko pertsonalak emandako jarraibideei kasu egingo die, instalazioaren martxa ona eta haren ohiko ustiapena bermatzeko.

a) Estacionar su vehículo en la plaza que le ha sido adjudicada.

b) No causar daños a otros vehículos o a las dependencias o instalaciones del propio aparcamiento.

c) Seguir las instrucciones emanadas del personal del aparcamiento en beneficio de la buena marcha de la instalación y su normal explotación.

5. Segurtasun-neurriak direla-eta, oinezkoen eta ibilgailuen sarbideak itxi ahal izango dira; oinezkoen pasabideak larrialdiko irteera gisa erabiliko dira.

5. Podrá autorizarse, por medidas de seguridad, el cierre de los accesos peatonales y de vehículos, debiendo poder utilizarse los peatonales como salida de emergencia.

6. Emakidadunak kontratu honen xede den plazan aparkatuko du ibilgailua, eta, ondorioz, ez du eragozpenik eragingo aldameneko aparkalekuetan.

6. El/la concesionario/a estacionará su vehículo en la plaza objeto de este contrato no interfiriendo por consiguiente las plazas contiguas.

7. Emakidadunek ezingo diete hirugarrenei esleitutako aparkalekua ez alokatu ez laga. Ez aldi baterako ez modu iraunkorrean.

7. Los/las concesionarios/as no podrán arrendar ni ceder a terceros la plaza de aparcamiento asignada. Ni temporal ni permanentemente.

10. EMAKIDAREN ESKUALDAKETA.

10.- TRANSMISIÓN DE LA CONCESIÓN.

10.1. Eskualdaketa aparkaleku baten titularraren heriotzagatik.

10.1 Transmisión por defunción de un titular de una plaza de aparcamiento.

Baldin eta emakidadun bat hiltzen bada, emakidaren titulartasuna haren ezkontideari eskualdatuko zaio (edo pareko harreman afektiboa duen pertsona) edo legezko oinordekoei, betiere izendatutako horrek goiko 4. atalean aurreikusitako baldintzak betetzen baditu.

En el supuesto en que un/a concesionario/a falleciera, la titularidad de la concesión se transmitirá a su cónyuge (o persona con la que mantenga análoga relación afectiva) o herederos/as legítimos/as, siempre que el/la designado/a cumpla con los requisitos previstos en el apartado 4 anterior.

Emakida eskualdatzeko eskabidea Eibarko Udalari jakinaraziko zaio, eta hark baimendu egingo du eskualdaketa izendatutako pertsonaren alde, aldez aurretik goian adierazitako baldintzak egiaztatu ondoren.

La solicitud de transmisión de la concesión deberá ser comunicada al Ayuntamiento de Eibar quien la autorizará a favor de la persona designada, previa comprobación de los requisitos antes indicados.

Baldin eta ezkontideak (edo pareko harreman afektiboa duen pertsona) edo oinordekoek ez badituzte goian adierazitako baldintzak betetzen, Eibarko Udalera joko dute, eta Udalak izendatuko du itxaron-zerrendatik zer

En el caso de que el/la cónyuge (o persona con la que mantenga análoga relación afectiva) o herederos/as no cumplan los requisitos antes indicados, se dirigirán al Ayuntamiento de Eibar quien designará a la persona de las listas de

pertsonari eman behar zaion emakida eta ordaindu behar duen gehieneko diru-kopurua, zeina 10.3 atalean deskribatuko den formularen arabera kalkulatuko baita.

Itxaron-zerrendarik ez badago, adjudikaziodunak Udalari eskatu ahalko dio emakidaren eskualdaketa hirugarren baten alde baimen diezaion.

Behin asmo hori jakinarazita, Eibarko Udalak lehentasunez erosteko eskubidea baliatu ahal izango du aparkaleku-plazaren gainean, eta emakidadunari 10.3 atalean jasotako formularen ondoriozko zenbatekoa ordainduko dio.

Eskubide hori baliatu ezean, adjudikaziodunak emakida eskualdatzeko interesa duela jakinarazi eta hilabeteko epean, Udalak emakida eskualdatzeko baimena emango du, eta eskuratzaile berriak ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa adieraziko du.

Hala eta guztiz ere, plaza desgaitasuna duen pertsona bati badagokio, eskualdaketa ez da senideen alde egingo, salbu eta senitartekoa desgaitasuna duen pertsona bada.

Baldintza hori ez bada betetzen, plaza adjudikatuko zaio itxaron-zerrendako desgaitasuna duen eta baldintzak betetzen dituen lehen pertsonari; eta era horretan ere ezingo balitz plaza adjudikatu, orduan Udalak berreskuratuko du, eta oinordekoei ordainduko die 10.3 atalean jasotako formularen ondoriozko zenbatekoa.

Emakidaren lagapena administrazio-dokumentu batean formalizatuko da.

10.2. Emakidaren inter vivos eskualdaketa.

Adjudikaziodun batek emakida eskualdatu ahal izango du, ondoren adierazten denari jarraituz.

espera a cuyo favor se debe transmitir la concesión y el importe máximo que debe abonar, calculado conforme a la fórmula descrita en el apartado 10.3 siguiente.

De no existir lista de espera, se podrá solicitar al Ayuntamiento que se autorice la transmisión de la concesión en favor de un tercero.

Comunicada esta voluntad, el Ayuntamiento de Eibar podrá ejercitar el derecho de tanteo sobre la plaza de aparcamiento, abonando a el/la concesionario/a el importe resultante de la fórmula recogida en el punto 10.3 siguiente.

En el caso de no ejercer ese derecho en el plazo de un mes desde la fecha de la comunicación por parte de el/la adjudicatario/a de su interés de proceder a la transmisión de la concesión, el Ayuntamiento autorizará la transmisión de la concesión, indicando el importe máximo a abonar por el/la nuevo/a adquirente.

Ello no obstante, en el caso de que la plaza corresponda a una persona con discapacidad no operará la transmisión a favor de familiares, a no ser que el familiar a cuyo favor se solicite la transmisión, tenga la condición de persona con discapacidad.

Si no se cumple ese requisito, la plaza se adjudicará a la primera persona con discapacidad que exista en lista de espera y que cumpla los requisitos y si tampoco se pudiera adjudicar así la plaza, ésta será rescatada por el Ayuntamiento, que abonará a los/as herederos/as el importe que resulte de la aplicación de la fórmula contenida en punto 10.3 de este pliego.

La cesión de la concesión se formalizará en documento administrativo.

10.2 Transmisión de la concesión inter vivos.

Un/a adjudicatario/a podrá transmitir su concesión sujetándose a cuanto seguidamente se indica:

1.- Emakidaren eskualdaketa itxaron-zerrendan pertsona interesdunak daudenean

Kasu hauetan, emakida-eskualdaketaren eskabidea Eibarko Udalari jakinarazi beharko zaio eta hark baimenduko du, emakida eskualdatuko den pertsona izendatuz eta adieraziz ordainduko duen gehienezko kopurua, 10.3 atalean jasotako formularen arabera kalkulatukoa.

Emakidaren lagapena administrazio-dokumentu batean formalizatuko da.

2.- Emakidaren eskualdaketa itxaron-zerrendan pertsona interesdunik ez dagoenean

Itxaron-zerrendarik ez badago, adjudikaziodunak emakida hirugarren bati eskualdatzeko baimena eskatu ahal izango dio Udalari.

Behin asmo hori jakinarazita, Eibarko Udalak aparkaleku-plaza lehentasunez erosteko eskubidea baliatu ahal izango du eta emakidadunari 10.3 atalean jasotako formularen ondorioz ateratako zenbatekoa ordainduko dio.

Eskubide hori baliatu ezean, adjudikaziodunak emakida eskualdatzeko interesa duela jakinarazi eta hilabeteko epean, Udalak emakida eskualdatzeko baimena emango du, eta eskuratzaile berriak ordaindu behar duen gehieneko zenbatekoa adieraziko du.

Emakidaren lagapena administrazio-dokumentu batean formalizatuko da.

10.3. Eskualdaketaren zenbatekoaren kalkulua.

Aparkalekua eskualdatzeari dagokion diru-kopurua honako formula hau aplikatuta ateratzen dena izango da:

1.- Transmisión de la concesión cuando existan personas interesadas en lista de espera.

En estos casos la solicitud de transmisión de la concesión deberá ser comunicada al Ayuntamiento de Eibar quien la autorizará designando la persona a cuyo favor se debe transmitir la concesión y el importe máximo que debe abonar, calculado conforme a la fórmula descrita en el apartado 10.3 siguiente.

La transmisión de la concesión se formalizará en documento administrativo.

2.- Transmisión de la concesión cuando no existan personas interesadas en la lista de espera

De no existir lista de espera, el/la adjudicatario/a podrá solicitar al Ayuntamiento que le autorice la transmisión de la concesión en favor de un tercero.

Comunicada esta voluntad, el Ayuntamiento de Eibar podrá ejercitar el derecho de tanteo sobre la plaza de aparcamiento, abonando a el/la concesionario/a el importe resultante de la fórmula recogida en el punto 10.3 siguiente.

En el caso de no ejercer ese derecho en el plazo de un mes desde la fecha de la comunicación por parte de el/la adjudicatario/a de su interés de proceder a la transmisión de la concesión, el Ayuntamiento autorizará la transmisión de la concesión, indicando el importe máximo a abonar por el/la nuevo/a adquirente.

La transmisión de la concesión se formalizará en documento administrativo.

10.3. Cálculo del importe de la transmisión.

La aportación económica correspondiente a la transmisión de la plaza de aparcamiento, será la que resulte de aplicar la siguiente fórmula:

Hasierako ekarpena x (1+ KPINren aldakuntza igarotako aldian) x emakidatik geratzen diren urte osoen kopurua

Emakidaren urte osoen kopurua

Aportación inicial x (1+ Variación INPC durante el período transcurrido) x Nº años completos que restan de la concesión

Nº de años totales de la concesión

Hasierako ekarpena adjudikaziodunak plaza eskuratzean ordaindu duen zenbatekoa da, eta gainerako parametroak data horri dagozkionak izango dira.

Siendo la aportación inicial el importe satisfecho por el/la adjudicatario/a en el momento de la adquisición de la plaza y el resto de los parámetros serán los correspondientes a dicha fecha.

11.- EMAKIDA AZKENTZEA

Emakida arrazoi hauengatik azkenduko da:

a) Erabiltzaile edo emakidadun indibidualaren heriotza edo ezgaitasuna, edo nortasun juridikoaren azkentzea, 10.1 puntuan jasotako kasuak.

b) Eskualdaketa kasuetan aldez aurreko baimenik ez izatea.

c) Iraungipena, epea amaitu delako.

d) Kalte-ordaina eman ondoren, emakida berreskuratzea edo baimena alde bakarretik errebokatzea.

e) Elkarren arteko adostasuna.

f) Kanona ez ordaintzea edo emakidaren titularraren betebeharren beste edozein ez-betetze larri, emakida edo baimena eman zuen organoak deklaratutakoa.

g) Ondasuna desagertzea edo aprobetxamendua agortzea.
h) Ondasuna jaregitea.

i) Emakidaren baldintza orokorretan edo berezietan aurreikusitako beste edozein arrazoi.

11.- EXTINCIÓN DE LA CONCESIÓN

La concesión se extinguirá por las siguientes causas:

a) Muerte o incapacidad sobrevenida del usuario o concesionario individual o extinción de la personalidad jurídica, alvo supuestos recogidos en el punto 10.1

b) Falta de autorización previa en los supuestos de transmisión.

c) Caducidad por vencimiento del plazo.

d) Rescate de la concesión, previa indemnización, o revocación unilateral de la autorización.

e) Mutuo acuerdo.

f) Falta de pago del canon o cualquier otro incumplimiento grave de las obligaciones del titular de la concesión, declarados por el órgano que otorgó la concesión o autorización.

g) Desaparición del bien o agotamiento del aprovechamiento.
h) Desafectación del bien.

i) Cualquier otra causa prevista en las condiciones generales o particulares por las que se rige la concesión.

12.- EMAKIDA ITZULTZEA

Emakidaren epea amaitzean, korporazioari itzuliko zaizkio emakidaren xede diren ondasunak, eta kontratistak kontratuaren arabera

12.- REVERSIÓN DE LA CONCESIÓN

Al término del plazo de la concesión, revertirán a la Corporación los bienes objeto de la concesión, debiendo el contratista entregarlos

eta kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian entregatu beharko ditu.

Itzulketa egin baino hiru hilabete lehenago, administrazioko organo eskudunak xedapenak emango ditu ondasunak hitzartutako baldintzetan entregatu direla egiaztatzeko.

con arreglo al contrato y en el estado de conservación y funcionamiento adecuados

Durante un período de tiempo anterior a la reversión, que será de 3 meses, el órgano competente de la Administración adoptará las disposiciones encaminadas a que la entrega de los bienes se verifique en las condiciones convenidas

13. EMAKIDA-KONTRATUAREN ARDURA DUEN UDAL SAILA.

Udalean emakida-kontratuaren ardura izango duen saila ZERBITZUAK izango da, eta hara jo beharko dute emakidadunek emakida-kontratuaren esparruan sortzen diren gorabeherak ebazteko eta jakinarazteko.

13.- DEPARTAMENTO DEL AYUNTAMIENTO RESPONSABLE DEL CONTRATO DE CONCESIÓN.

El departamento del Ayuntamiento responsable del contrato de la concesión será el SERVICIOS y a él deberán dirigirse los/as concesionarios/as para la resolución y comunicación de las incidencias que en el marco del contrato de concesión resulten.